

«Gaur egungo Errusiak 1938ko Alemaniako egoera dakarkit gogora»

Alfred Koj (Zyryan, Kazakhstan, 1961) idazlea eta ikasketez matematikaria da. Boris Jeltsin zenaren presidentetzan Errusiako Federazioko lehen ministrordea izan zen hainbat hilabetez. Aurrez garaiko agintari sobietarrek abian jarritako pribatizazio programa basatiaren arduradunetarikoa bat izan zen. Sobietar Batasunaren ondarea gutxi batzuen esku utzi zuen programak kritika ugari eragin zituen, besteak beste errusiar oligarkak boterera eraman zituelako. 2014tik Alemanian bizi da, Vladimir Putinen egungo Errusiako presidentearen aurka egin ostean.

Nola ikusten duzu Errusia gaur egun? Zer herrialderekin alderatuko zenuke bertako egoera? 1938ko Alemaniarekin. Urte hartan “Time” aldizkariak Hitler izendatu zuen urteko pertsonaia bezala. Aldizkariaren leloa honakoa izan zen: “38 urteko gizonak 39. urtea ahaztezin bihurtuko du” (2007an “Time” aldizkariak berak Putin izendatu zuen urteko pertsonaia bezala).

Oso aurreikuspen larria egiten duzu; hala ere, ontzat hartuta, Errusian pareko egoera bat ekiditeko barne oposizioak oso sendoa izan behar luke, eta egun ez da horrela inolaz ere, oposizio gehiena ere Putinen alde baitago. Zer dela eta da hain ahula oposizioa? Oso samurra da, oposizioan baldin bazaude argi duzu etorkizuna: kartzela, kanposantua edo bizi osorako mehatxuak. Ez dago oposizioan lana egiteko prest dagoen jende gehiegi. Gainera, mehatxuak gero eta gordinagoak dira.

Ez duzu uste gakoa Errusiako populazioak ez duela oposizioaren asmoekin bat egiten dela? Arestian egin dizudan alderaketa berreskuratuko dut. Zer-nola-ko egoeran zegoen 1938ko Alemania? Alde batetik, jendearen babesa zuten naziek, baina, bestetik, errepresio gordina ere nagusi zen; biak uztartzen ziren.

ALFRED KOJ

ERRUSIAR OPOSITOREA

Ez da batere putinzalea. Errusiar gehienak ere ez dira kojzaleak, ez baitute ahaztu

Sobietar Batasun ohiko pribatizazio basatiak berak zuzendu zituela eta Boris Jeltsinen lehen ministrordea ere izan zela.

Gaur egungo Errusiako egoera 1938ko Alemaniak bizi izan zuenarekin alderatzen duenean, gogor kritikatzten du Putin, baina baita Mendebaldea bera ere.

Izan ere, Lehen Mundu Gerraren ondoren Frantziak eta Ingalaterrak Alemaniarekin egin bezala, Mendebaldeari Errusiari ate guztiak itxi izana leporatzen dio, batez ere

Europar Batasuneko herrialdeei.

Errusian ere gauza bera gertatzen da.

Egoera horretan, nola azalduko zenuke Boris Nemtsov zenduaren figura? Zer suposatu zuen bere hilketak Errusiako oposizio mugimenduarentzat? Oposizioaren lidergoan Nemtsovek zuen pisua izeberg batekin aldera daiteke; bere tamainaren %10 baino ez genuen ikusten. Izan ere, Nemtsoven kasuan ere alde ezkutua zen garrantzitsuena, eta ondotxo zekien hori Kremlinek. Alde batetik, ahalmen izugarria zuen. Telebistako kanalen ateak zabaldu izan balizkiote jendeak hobeto baloratuko zukeen. Kremlinek bazekien eta horregatik ez zion telebistan irteten uzten, eta ahal zuen guztietan iraindu egiten zuen. Bestetik, eta hori da garrantzitsuena, oposizioaren barnean bitartekari lana egiten zuen. Elkar hitz egiten ez zuten artean sareak ereiten ziotuen. Bere bitartekaritza esker oposizioan gauzek aurrera egiten zuten. Oposizioa batuta mantentzen zuen iltzea zen. Atera zutenean, dena apurtzen hasi da oposizioaren barnean. Azkenik, lehen aipatu dudan izebergaren azpialdera itzuliz, oposizioa diruz hornitzeko ezinbestekoa zen Nemtsoven lana; berak zituen enpresa munduarekin loturak. Orain lotura horiek guztiak desagertu egin dira. Nemtsov hilda oposizioa ekonomikoki kolpatzea lortu du Kremlinak eta orain sistema hori guztia berreraiki egin behar da. Aipatu hiru faktoreok kontuan hartuta, Nemtsov erail zuen atentatua oposizioaren aurkako kolpe zehatza izan zen, oso ongi pentsatua.

Oposizioaren ahultasuna ikusita, zure ustez Ukrainiako auzia izan daiteke Errusiako gizartea desoreka dezakeena? Ez dut uste, Ukrainiakoa ez da mota horretako auzia.

Orduan, zein izan daiteke eragin hori izan dezakeen auzia? Vladimir Putinek Errusiaren barnean lortu duen batasuna aztertu besterik ez dugu. Nondik

lortzen du jendearen aldetik horrenbesteko babesa? Nire ustez bere erregimenaren sustraia propaganda aparatu izugarria da. Telebista kate guztiak ditu menpean, baita idatzizko komunikabide gehienak ere. Ez dauka Internet kontrolpean, baina bost axola telebista bere esanetara edukita. Putini arazoak sortzeko modu bakarra bere monopolio informatiboa suntsitzea da. Orduan, eta bakarrik orduan, beste ikuspuntu alternatibo batzuk ere azaleratuko balira, Putinek arazoak izango lituzke. Horretarako, Europar behintzat, propaganda sistema horri nola aurre egin pentsatzen hasi beharko lirateke. Esate baterako, Russia Today telebista kateak izugarriko eragina du, batez ere Europa mendebaldean bizi den diaspora errusiarrengan. Hala ere, Europar inor ez dago prest horrelako proiektu alternatibo bat sortzeko beharrezko dirua jartzeko, nahiz eta oso garrantzitsua den. Adibide sinple bat jarriko dizut. Duela urte batzuk sortu zen Al Jazeera, Europako sare guztietan hizkuntza ezberdinetan emititzen zuen kanala. Bere ikusle nagusiak Europar bizi diren musulmanak dira. Eta zer daukagu orain? “Charlie Hebdo” aldizkariaren aurkako erasoak, talde islamista sutsu netan borrokatzera lerrokatzen diren ehunka musulman europar... Hori da Al Jazeeraren kontrolik gabeko lanaren emaitza, hainbat europarri burmuina hustu die kate horrek. Bere garaian ez zen ezer egin adierazpen askatasuna defendatu behar zen aitzakiapean. Gauza bera gertatzen ari da orain Russia Today telebistarekin. Kate hori XXI. mendeko Al Jazeera da. Eta berandu baino lehen zerbait egin behar da.

Egunotan kaleratu den inkesta baten arabera, errusiarren %89k bat egiten dute Gobernuarekin. Noraino dira erantzule komunikabideak? Ez al da izango komunikabideek errusiar gizarteak entzun nahi duena esaten dutela? Eta zergatik ez dute herritarren %99 esaten %89 horren orde?

“

«Errusian egun bizi den egoeraren errudun nagusia Mendebaldea da, dudarik gabe. Jeltsin eta Putin bera ere Europari ate joka ibili ziren. Ez zieten, ordea, ezer eskaini»

«Oposizioan baldin bazaude, Errusian oso argi duzu zure etorkizuna: kartzela, kanposantua edota bizi osorako mehatxuak»



Pablo GONZALEZ

Izan ere, ez dute ikerketa sozio-logiko independenterik egiten uzten. Horregatik hain zuzen ezin dira zenbakiok egiaztatu. Egia esan, nik ez dakit ziur noraino babesten duen herriak egungo boterea. Kasuotan, gainera, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna mantendu ala ez erabakitzeke 1990ean antolatzen erreferenduma dator kit burura beti. Orduan, Sobietar Batasuna mantentzearen aldeko bozak aise irabazi zuela iragarri zuten. Hurrengo urtean, ordea, alde bozkatu zutenetatik inor txo ere ez zen atera kalera Sobietar Batasuna desagitearen aurka protesta egiteko. Zeintzuk dira, beraz, benetako zenbakiak? Inork ez daki Putinek duen benetako babesa.

Babesa izan badu, noski, baina uste dut babes erabat pasiboa dela. Putinen alde dauden gehienak ez daude prest bere alde borrokatzeko.

Zer eragin dute zigor ekonomikoek Errusiako herriarengan eta herriak Gobernuarekin duen harremanean?

Nire ustez, alde aurretik, zigorrek zer lortu nahi dugun galdetu behar diogu gure buruari. Hor duzu Kubako auzia. Ameriketako Estatu Batuek aspaldi ezarri zizkioten zigorrak. Lortu al du Washingtonek nahi zuena Kuban? Ez. Eta Iranen? Ezta ere. Noiz lagundu dute zigorrek zigorrak bultzatu zituenak aurreikusitako emaitzak lortzera? Sekula santan. Zigorrak herritar xumeek pairatzen dituzte, ez eliteek. Hortaz, zertarako zigorrak? Estatubatuarrek, ordea, ondo egiten dutena eta europarrek oraindik ulertu ez dutena honakoa da: akuilua erakusten baduzu, bide batez azenarioa ere eskaini behar duzu. Mehatxuaren ondoan alternatiba eskaini behar diozu halabeharrez edonori; eskatzen diozuna bete-

tzen badu saria lortuko duela bermatu behar diozu, alegia. Adibidez, Lehen Mundu Gerran Alemania menperatu ostean, Frantziak eta Ingalaterrak honakoa lortu zuten: Hitler aurrez aurre izatea 1939an. Aitzitik, Bigarren Mundu Gerraren ostean, estatubatuarrek Marshall plana aurkeztu zuten eta Alemaniak ez zuen inolako arazorik izan Europar Batasunean sartzeko. Non dago Errusiari eskaintzeko Marshall plana? Jeltsin ate joka ibili zen Europar Batasunak sartzzen utz ziezaion. Putinek ere ate bera jo zuen bere lehen lege gintzaldian. Utzi zieten sartzzen? Ezta pentsatu ere.

Imajina dezagun une batez, Putinek gogo handiz desio zuen moduan, Errusia 2003an Europar Batasunean eta NATOn sartu izan balitz zein izango litzatekeen egungo egoera. Ez genuke oraingo Ukrainiako gerra. Errusian giza eskubideen arloan

egun dauden arazoak ere ez lirateke egongo. Ziurrenik Putin bera ere ez litzateke jada presidente izango. Norena da horren guztiaren errua? Mendebaldea rena, dudarik gabe. Bigarren Mundu Gerraren hasieran Frantzia eta Ingalaterra ere erantzule izan ziren moduan. Ezin da atea kolpe batez itxi norbait joka denean. Jeltsin Europari ate joka aritu zen, baita Putin bera ere. Prest zeuden, gainera, trukean ia edozer emateko. Zer erantzun zioten Errusiari? Ezin zela Europar Batasunean sartu migrazio mugimenduak kontrolatzetik ez zuelako. Bikaina erantzuna. Eta zuek, europarrok, kontrolpean al dituzue? Ezin duzue. Zer ari da gertatzen Italiako hegoaldean, Grezian, Gibraltargo itsasartean edo Kanarietan? Errusian orduan ere askoz hobeto kontrolatzen zuten migrazioa European baino. Baina ez zeniguten sartzzen utzi. Orain dagoena dago. Zuen uztza.